

GASTEIZ JEU

83. zk.
1999ko
azaroa

GJU elkartearen babesarekin

FRANKEO ITUNDUA 48/27



Mariano Jango



GASTEIZ. MUSEOA. ARTISTAK.

Qlbeniz



“Euskara eta kulturaren alde
profesionaltasun osoz”

Benito Guinea, 2 • Tel.-Faxa: 945 25 75 14
01003 - Gasteiz



4. orr.
ALAVES. EUSKARA.
UDALA...



6. - 9. orr.
LANKU
ZERBITZUA



10. orr.
HERRIA
HIZKUNTZA



12. orr.
ARTISTAK. MUSEOA.
Iñaki Larrinberekina
hizketan



15. orr.
GEUREKIN MENDIRA.
BERIAIN.



17. orr.
PITI-PATA.
ASTIALDIA



20. orr.
MANE&MALDONADO



24. orr.
"Eredu Alternatiboa",
"Eredu elebidun bakarra"...
Ze demontre da hori?




28. orr.
KATANGA KULTUR
FAKTORIAN BARN



32. orr.
AGENDA



26. orr.
AGUR RAUL!



36. orr.
Zergatik galtzen
dira hizkuntzak?

GEU GASTEIZ, Gasteizko Euskaldunon hilabetekaria

Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a - Telefonoa eta Faxe: 945 22 21 53
e-mail: geugaste@grn.es **Zuzendaria:** Estitxu Breñas Glz. de Zarate.
Erredakzio-batzordea: Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez.
Erredakzioa: Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron.
Argazkiak: Karlos Fdz. de Betoño eta Edorta Sanz. **Maketa:** DAV '99. **Komikia:** Iñigo Sarasola. **Kolaboratzaileak:** Amaia Zaldua, Maider Perez, Iñaki Zorrakin eta Iñigo Kastresana. **Publizitatea:** Edurne Begiristain. **Banaketa arduraduna:** Txipi Ormaetxea.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) - Ale Kopurua: 2.500 - LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988 -
Frankeo Itundua: 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu Gasteiz hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzunkizunik.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara
Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Gasteizko Udala
Kultura Saila



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

PREMAIAZKO TELEFONOAK

S.O.S. DEIAK:

..... 945 112

UDALZAINGOA:

..... 945 092

INFORMAZIOA:

..... 945 010

SUHILTZAILEAK:

..... 945 16 11 11

GURUTZE GORRIA:

..... 945 22 22 22

D.Y.A.:

..... 945 28 10 20

ERIEETAKO URGENTZIAK:

..... 945 24 44 44

AUTOBUS GELTOKIA:

..... 945 25 84 00

RENFE:

..... 945 23 02 02

AIREPORTUA:

..... 945 16 35 91

ERREPIDEETAKO INFORMAZIOA:

..... 945 28 20 00

HIRI-BABESA:

..... 945 16 11 61


UDALETXEA:

..... 945 16 11 00

FORU ALDUNDIA:


..... 945 18 18 18

SUTONDOA



Mendizorrotzeko futbol zelaia dela eta

Alfonso Alonso alkate izendatu berria zela, Gonzalo Antonekin batera futbol zelaiko lehen gora-beherak ikustera joan eta zera ziurtatu zuen: futbol zelaiko errotulazio osoa, barnealdekoa zein kanpokoa, elebiduna izango zela; hori zela bere nahia. Erantzun berbera eman zuen Alaveseko Presidenteak.



I. K.



Kan Groak

Zerrenda berria osatzen ari gara. Bertan agertzea nahi izatekotan deitu 945 22 21 53 telefono zenbakira eta zehaztu zure ordutegia.

GAUEZ

Leire 649 57 11 29
Miren ... 945 13 02 57

ASTEBURUAK

Leire 649 57 11 29
Miren ... 945 13 02 57

Geuazoka

SALMENTAK ALOKAIKURIAK

Lokal bat alokatzen da tailer artistiko, artisautza tailer edo biltegiarako, hiri erdialdean, 20 m² ingurukoa eta oso ekonomikoa. 945 26 41 78 (15:00etatik 17:00etara Elena).

Euskarazko hiztegia, Hiztegia 2000, salgai daukat. Bate-re erabili gabea dago, berri-berria. 1.500 ptan saltzen dut, dendetan 3.000 pta. balio du. Tf.: 945 28 10 67.

Paseoko bizikleta salgai. TREK markakoa, SIS shimano kanbioak; 18 abiadura; bost urte dauzka eta egoera onean dago. Prezio erdian saltzen dut. 25.000 ptan. Tf.: 945 28 10 67.

CENTON markako tripodea salgai. Oso handia eta sendoa da, ia batera erabili gabea. Berri berria dago, pol-tsa eta guzti. 6.500 pta. Nire beharretarako gehiegi delako saltzen dut. 945 28 10 67.

Aktiboan dagoen harategia alokatzen da. Esparru zabala da eta ondo prestatuta dago. 945 24 08 65 Ana.

Errentan uzten da Opakuako mendian, Araba, 100m2ko etxola, 6000m2ko zoroan kokatua. Informazioa: 945 30 10 27, bulego ordutegian, Isabel.

BESTEAK

DBHko Fisika-Kimika klase partikularrak behar. Itziar: 945 24 32 41.

21 urtetik gorako pertsona euskalduna behar da urte t'erdiko umea zaindu eta etxeko lanak egiteko, 2 goiz eta 2 arratsalde. 945 14 36 86 (Itziar)

Ume bat zaintzeko, pertsona euskalduna behar da. Deitu 945 28 82 42 telefonora irailaren lehenengo astean edo sailatu irailaren 20tik aurrera.

Euskal Filologiako ikasle bat naiz eta datorren ikasturtean umeak zainduko nituzke. 20 urte, Gipuzkoakoa eta eta hurrekin ondo konpontzen naiz, lehengusuekin behintzat bai. Telf. 943 75 24 67. Egoitz.

Laredon apartamentua alokatzen da uda honetan, hondartza ondoan. 943 79 52 80. Karmen.

Bilbora edo Galdakaora egunero joaten den pertsona baten bila nabil gastuak konpartitzeko. 945 24 92 36.

2. D.B.H.ko matematika eta ingelesa euskaraz ematen dituen irakaslea behar da martxotik irailera, oinarritik hasteko. Maribel, 945 172 850.

DEIAK

Ohiko osasun sistemak asetzen ez bazaituzte, zatoz Sumendi osasunaren autogestioaren aldeko elkartera 945 22 65 03.

Ez hago bakarrik!! Hator Gay-tasunara. Informazioa, hitzaldiak eta eztabaidak, psikologi, sexologi eta lege aholkularitza... Bilerak asteazkenetara. 945 25 77 66.

Esperanto Elkartea. Hizkuntza txikiak maite ditugulako, esperantoz mintzatzen gara. Zapataria kalea, 29, behea.

Agurrak, saldu edo erosi nahi duzuna... idatzi postaz: Pedro Asua, 2. 3.a faxa. 945 22 21 53

OLARIZU MENDI

HERRIKO TABERNA

JOSE URUÑUELA KALEAN

GASTEIZKO

IRUBIDE

RAMIRO DE MAEZTU KALEAN

HERRIKO TABERNA

HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA

"SAN FRANCISCO JAVIER" KANTOIAN

**EZ DAGO EUSKARARIK
INBERTSIORIK GABE
(ARGIA, 1999-10-3).**

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Bertsoa aukeran



Bertsozale Elkartek sortutako Lanku zerbitzuak urtea bete du. Lanku bertsoarekin zerikusia duten ekitaldiak antolatzen dituen zerbitzua da. Antolaketa erraztu eta ikuskizunetarako bitartekoak ematen dizkio bertso emanaldia antolatu nahi duen pertsona edo talde orori.

Lankuk bezeroak eskatu moduko saioak prestatzen ditu: bertso-tramak, bertso afariak, plaza libreko saioak, eta abar. Horretaz gain, Bertsozale Elkartaren zerbitzuak berak sorturiko eskaintza bereziak daude aukeran. Adibidez, argazkiak eta bertsoak uztartzen dituen erakusketa, ikus-entzunezko saioak, bertsoak oinarri dituzten musika emanaldiak eta haurrei zuzendutako ikuskizunak.

Informazioa edo eskakizunetarako 943 31 40 31 telefono zenbakira deitu behar da.

Trebiño European

Alfredo Oraa eta Juan Carlos Aguilok, Argantzun eta Trebiñoko alkateak hurrenez hurren, European azaldu dute beren herrietan bizi den egoera administratiboak eguneroko bizitzan sortzen dizkien arazoak.

Gorka Knörr EAko eurodiputatuak gonbidatuta abiatu ziren Estrasburgora bi alkateak eta bertan EAEko ordezkari eta Europa osoko hautesien aurrean azaldu zuten euren egoera. Puntu zehatz bat azpimarratu zuten gehienbat Oraak eta Aguilok, Trebiñok jaso ezin ditzakeen Europear Batasuneko laguntzak. Laguntzak lortzeko EBk hiritar kopuru zehatz bat exijitzen du, Trebiñoko herriek ez duten kopurua. Trebiñoko ordezkariak laguntzak eskuratu ahal izateko inguruko herriekin elkartzeko aukera aztertzen ari dira, baina datozen lau



urteotarako dirua jasotzeko aurkeztu beharreko paperak entregatzeko epea amaitzeaz dago.

EBn dauden enklabe kopurua ez omen da ezagutzen, gaia ez da landu eta beraz EBk arlo horretan izango duen jokaera ere ez dago zehaztuta.

Horregatik Gorka Knörrek gai honi buruzko azterketa bat egiteko asmoa dutela iragarri zuen.

Emakumeak Mercedes-en... lehen aldiz!

Mercedes-ek Gasteizen duen lantegiak emakumeak kontratatutako ditu lehen aldiz produkzio katean lan egiteko. Iragarpena egin denean jadanik zazpi urte bete dira ESK sindikatuak emakumeen diskriminazioa salatu eta gizonen lanpostu berdinetan lan egiteko duten eskubidea aldarrikatu zuenetik. Sindikatuak beti azpimarratu egin dute ez zegoela katean andrazkorik ez egiteko



arrazoirik eta, beraz, arazo bakarra zuzendaritzaren borondatea zela.

Mercedesez ez du oraindik zehaztu kontratatutako dituen emakumeen kopuru zehatza, baina bai datozen hilabeteotan lanean hasiko diren 180 langile berri guztiak ez direla, orain arte bezala,

gizonak izango.

Alemaniko etxeak Vito furgonetaren ondorengoa ere Gasteizen egitea erabaki du, eta lan hori aurreraz eramateko 180 langile gehiago hartu beharko ditu. Horietatik 80 bat berehala hasiko dira lanean, urtea amaitu baino lehen, eta gainontzekoak urtariletik aurrera.

TXUSTIA
TABERNA

ESPEZIALITATEA:

BAT ERE EZ

Mateo Moraza kalea GASTEIZ

Xabier
taberna

musika ona
eta giro ezin hobea


Aiztogile kalea (KUTXI), 23



eguneko

Antzerkia, bai; euskara, gutxi

Urria eta abendua bitartean Gasteizko Antzerkialdian Principal Antzokiak helduentzat taularatuko dituen lan guztietatik bi baino ez dira euskaraz, jada eskainiak -urrian-; Txaloren "Celimene eta Kardinala", Ramon Bareak zuzendua, 23an, eta Bergarako Orfeoaren "Oliver" komedia musikala -euskaraz egindako lehen musikal nazioartekoa-, 16an. 1998. urtea euskarazko eskaintzari dagokionean onenetakoa izan zen, lau programatu baitzuten Udalak antzoki



honetan. Iazko urtearekin alderatuta eta Principalari dagokionez, beraz, %50ean jaitsi da euskararen erabilpena Gasteizko Antzerki Jaialdian.

Hiriko kulturgintzako inguruko ahotsek beherakada salatu dute eta horren arduraduna bilatzeko orduan Udala Gobernu berrira begi-

ratu dute. Udaleko Kultur Saileko arduradunek, aldiz, euskarazko lanak ekartzen ahalegintzen direla esan dute, eta egitarauan gehiago ez egoteko arrazoi bakarra dela oso gutxi daudela. Iaz euskarazko lau emanaldiek gaztelerazkoek baino ikusle kopuru txikixeagoa bil-

du izana ez da euskarazko eskaintza jaisteko arrazoi izan, Udaleko iturriek esan dutenez. Beraz, egitarauak urte amaiera arte irauten badu ere, euskara gehiagorik ez da entzungo Principal-en. Eta haurrentzako egitarauan gauza bera: urritik abendura bitartean bi antzezlan, eta biak urrian.

Presoen aldeko ekimena

Urriaren 8an euskal presoen Euskal Herriratzea eskatzeko deitutako kontzentrazioak EAJ, EH, EA eta EBko ordezkariak bildu zituen mobilizazioarekin bat egindako hainbat hiritarrek batera Diputazioaren Jauregiaren atean.

Kontzentrazioaren deialdia EH, EA eta EBk egin zuten eta zalantza batzuk izan eta gero EAJk ere eman zion baiezkua. Bildutakoek ekimena Arabako erakundeetan jaio zela azpimarratu zuten -Ba-



tzar Nagusietan hain zuzen ere.

Egun horretan bertan ere presoak izan ziren Eusko Legebiltzarreko eztabaida gai nagusia. Lizarra-Garaziko Ituna sinatu zuten talde politikoek Madrilgo Gober-

nuaren kartzela politika salatu eta euskal presoen eskubideak errespetatzeko eskatu zuten berriro ere. Bilera horretan parte hartu zuten hainbat legebiltzarkide Diputazioaren aurrean egindako kontzentrazio-

ra joan ziren.

Presoen Euskal Herriratzearen aldarrikapenaren gaiarekin jarraituz, berri bitxi bat utzi du pasa den hilabeteak: Udaleko langileek, Alfonso Alonso alkatearen aginduak betez, EHko Udala Taldeak bere leihotetan zeukan "Euskal Presoak Euskal Herrira" zioen pankarta erretiratu zuten. Alka-teak kalea ematen duten leihotetan ezin dela pankartarik jarri esan zuen egindakoa azaltzeko; EHko ordezkariak behar den guztietan pankarta berria jarriko dutela ziurtatu zuten.

LIBURUDENDA

axular

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



MARRAZKIAK • KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK



Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Udal kirol instalazioen prezioak mantenduko dira

Udalak jakinarazi duenez, kirol instalazio publikoen prezioak mantendu egingo dira 2000. urtean zehar. Mantentzearen helburua kirola bultzatzea da, norberaren bizi- kalitatean eragin onuragarriak dituelako. EHko Udal Taldeak Mendizorrotzako egun baterako sarreraren prezioa jaistearen aldeko jarrera agertu zuen, baina Udal Batzak ez zuen proposamena onartu, beste aukera bat dagoela argudiatuz; Gamarra merkeagoa dela.

Prezioen berri emateaz gain, datorren urtean eta legegintzaldi osoan aurrera eraman nahi dituen proiektuen berri eman zuen Antonio Sanchez Kirolerako zinegotziak. Asmo horien artean Gamarra urte osoan zehar erabiltzeko moduko esparru bilakatzea azpimarra daiteke, baita ere Mendizorrotzako frontoiak bultzatzea. Belo-dromo bat eta motoziklismoa eta automobilismoan aritzeko guneak eraikitzea ere aipatu zuen Sanchez Jaunak, orain-



dik nahiko zehaztu gabe dauden ideiak badira ere.

Irak-i erasoaren itzala

Estatu Batuek 1998an Irak-i eraso ziotenean Gasteizen egindako protesta mobilizazio eta kontzentrazioaren oihartzuna 99ko amaiera arte iritsi da, urrian bertan horietako batean gertatutakoei buruzko epaiketa izan delako. Epaietan kontzentrazioan parte hartutako hiru lagunen kontrako salaketa aztertu eta atzera bota zen. Salaketak zioenez, hiru lagunek Ertzaintzari eraso egin zioten, baina

epailearen ustez ez dago horren frogarik eta bi gazterentzat absoluzioa eskatu zuen; hirugarrenarentzat 20 eguneko isuna eskatu zuen poliziak izena galdetzean ez erantzuteagatik.

Epaiaketa baino bi egun lehenago kontzentrazioa antolatu zuten 17 elkartetak eta GKEk salaketak bertan bera uztea eskatu zuten, eta deitutako mobilizazioan istilurik gertatu bazen, Ertzaintzaren jarreragatik izan zela salatu.

Kasua itxi egin da

Hutsune eta itzalez zipriztindutako kasua itxi egin da, Udaleko alderdi guztiek Udal-tzaingoak uztailaren 31an atxilotu eta bi hile-ra hildako gaztearen kasuan emandako informea onartu dutenean. Miguel Angel Etxebarria zinegotziak kasuari buruzko azalpenak eman behar izan zituen EHko




Udal Taldeak argibideak eskatu zizkiolako. Zinegotziak informazioak emateko orduan nolabaiteko azkartasun falta egon zela onartu zuen.

Argibideak eskatu ziotuen taldeak, EH, forenseak egindako informea onartu zuen, zalantzak mantentzeko daturik ez duela esanez, eta atxilo-

keta egin zenean salaturako informazio falta berretsi zuen.

Ignacio Jimenez gaztearen familia eta ijitoen topagunea den Gao Lacho Drom Elkarteko ordezkariak Udalak inolako informaziorik eman ez izana salatu zuten eta kasuari buruzko zalantzak agertu zituzten. Elkarteko ordezkariak esan dutenez ez dute tratatu txarren frogarik, baina bai oso susmo argia.

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta kotoizko ebunak eskuz margotuak"
- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59

ARTEPAN



Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37

01005 GASTEIZ

vitrales



MIKEL DELIKA

BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

Txagorritxu, larrialdietan



Sindikatuak nahikoa lan izaten ari dira Gasteizen azken hilabeteotan. Oraingo honetan Txagorritxuko langileak daude kezkatuta, eritexeko zuzendaritzak agindutako aldaketek bi arlotan izango dituzten eraginengatik; batetik beraien lanpostuetan eta, bestetik, gaixoei jasoko duten atentzioan.

Txagorritxuko zuzendaritzak 28 ohe itxiko dituela zabaldu zuenetik, langileek erabaki hori arrazoi ekonomiko hutsean oinarriturik dagoela salatu eta gaixoen arretan eragin nabarmena izango duela ziurtatu dute behin eta berriz, hiritarrek osasun-laguntza jasotzeko duten eskubidearen kontrako neurria dela. Are gehiago, azken eguno-

tan Txagorritxuko langileen ordezkariak Gasteizko ospitalerik garrantzitsuenaren zerbitzua deusezten ari direla gaineratu dute.

Langileek eritegia, eta batez ere larrialdi saila, gainezka dagoela azaldu dute, eta beraz, ohe kopurua gutxitzea ez dela inolaz ere irizpide logikoetan oinarrituta egin. Era berean, mediku eta erizainek Zuzendaritzak ospitale egonaldi laburrak bultzatzen dituela esan dute, nahiz osasun ikuspegitik begiratuta egokiena ez izan, behar baino lehen etxera bidaltzen den gaixoa larrialdien zerbitzuaren bitartez itzuli ohi delako.

Gaixoengan izango duen eraginaz aparte, langileek ere pairatuko dituzte Andoni Arcelay buru duen zuzendaritza taldeak agindutako aldaketen ondorioak. Izan ere, 34 langileen lanpostua aldatu egingo da 28 oheen itxierarekin batera.

Urriar zehar langileen mobilizazio eta kexak areagotu egin dira eta Legebiltzarraren aurrean kontzentrazioak, ospitalean itxialdiak, ordu beteko lanuzteak... burutu dituzte, eta azaroan zehar mobilizazioekin jarraituko dutela iragarri dute. Beraz, aferak ez du, oraingoan behintzat, amaiera jakinik.

1 x 2 = 2

(2.000 gara / 4.000 izan gaitzeko)

Harpidedun!

zure aita, ama, anaia, arreba, izeba, osaba, lehengusua, lehengusina, semea, alaba, aitona, amona, iloba, berramona, berraitona, biloba, aitagiareba, amagiareba, suhia, erraina, lagun eta ezagunak...

Izen Deiturak: _____

Telefonoa _____ Helbidea: _____ Kodea _____

Heria: _____ Jaiotze data: _____ Lanbidea: _____

Kontu zenbakia (20 zenbakiak)

Entitatea	Sukurtsala	K.D.	Kontu zenbakia
_____	_____	_____	_____

...EGIN ITZAZU HARPEDEDUN

Geu Gasteiz aldizkaria. Pedro Asua, 2. 3a. 01008 tfnoa.: 945 22 21 53

Kartzela barruko kartzela

Langraitzeko espetxeko emakumeentzako esparrua "kartzela barruko kartzela" bezala definitu zuen Txotxe Andueza HBko mahaikideak. Txotxe Andueza eta Mati Iturralde, kartzelan egondako bi mahaikideak, Langraitzeko presoekin zirenean. Salatutako gertaera abuztuaren 21ean gertatu zen, funtzionariak emakume preso bati gizonen gunetik jasotako paper bat, ohartxo bat, kentzeko eraso egin zionean.

Horrelako gertaerak oso arruntak direla salatu zuten bi mahaikideek eta Salhaketa Elkartek, funtzionariak errespetu izpirik ere ez dutelako agertzen espetxeratutako

emakumeenganako. Horren arrunta ez dena erasoak epailearengana iristea da. Kasu honetan lekukoaren papera garrantzitsua izan da, normalean gertatutakoa ikusi dutenak presoak izaten direnez, ondorioen beldurrez ez baitute testigantza eman nahi izan ohi.

Epaiketaren berri emateaz gain Salhaketa eta lekuko biek Langraitzeko emakumeen esparruko bizi-egoeraren kritika gogorra egin zuten. Egun dauden 80 espetxeratu ingururen %80k sendaezinezko gaixotasunak dituzten arren, arreta medikua oso eskasa dela adierazi zuten. Bestetik, Langraitzen dauden emakumeek ez dute ariketa fisikoa egiteko lekurik, ezta ekimenak lantzeko tailerrik ere.



- 1) Zerk bultzatu zaitu euskara ikastera?
- 2) Zer da lortu nahi duzuna kurtsoa bukatzean?
- 3) Zergatik aukeratu duzu euskaltegi hau?



- 1) Batez ere lanean eskatzen didatelako.
- 2) Nire helburu nagusia kurtsoa amaitzean, besteek niri ulertzeko moduan mintzatzea da.
- 3) Oraindik ez dut euskaltegi zehatz bat aukeratu: informazio bila nabil.

Coro. Irakaslea



- 1) Lanbideari begira behar dudalako ari naiz euskara ikasten.
- 2) Euskarako titulu bat atera nahi nuke, eta EGA bada, askoz hobe.
- 3) Hemen erabiltzen duten sistema oso eroso da, batez ere denbora libre gutxi duguontzat.

Esther Pz. Olmedo. Arkeologoa bai & by-ko ikaslea



- 1) Bi arrazoi nagusirengatik hasi naiz euskara ikasten: seme-alabak eta lanbidea.
- 2) Nagusiki lortu nahi dudana hitz egiteko orduan nahiko ondo egitea da.
- 3) Denboraz nahiko estu nabil eta hemen nahi dudanean etortzeko aukera ematen didatelako.

Miguel Angel. Lorazaina bai & by-ko ikaslea

1999-2000. Euskaltegietako matrikulazioa Gasteizen

IKA	2.310 ikasle
AEK	1.090 ikasle
BAI&BY	230 ikasle
HEGOALDE	535 ikasle
UDABERRIA	745 ikasle

"Herria da gorputza, hizkuntza bihotza"

Asko dira gaur egun arrazoi batengatik edo besteagatik euskara ikasten hasten diren horiek. Hona hemen euskaltegi desberdinetatik irtetzen nahiz sartzen harrapatu ditugun ikasle horietako batzuk:



- 1) Lanean hasteko euskarako titulu eskatzen didatelako.
- 2) EGA atera nahi nuke, eta ahal den neurrian, euskaraz ondo hitz egitea ere gustatuko litzaidake.
- 3) Euskaltegi hau nire etxetik oso hurbil dagoelako aukeratu dut.

Gracia. Erizaina Ika-ko ikaslea



- 1) Euskara ikastea oso interesgarria iruditzen zaidalako batez ere. Horretaz gain, oposaketak egiteko ere behar dudalako.
- 2) Gustatuko litzaidakeena euskaraz ondo hitz egiten jakitea da.
- 3) Entzunda nuelako euskaltegi honetan bereziki mintzamina lantzen dutela.

Isabel Calvo. Ikaslea Ika-ko ikaslea



- 1) Txikia nintzela nire gurasoek euskara ikastera bidali ninduten, baina azkenean utzi egin nuen. Orain, unibertsitatea bukatu dudala, berriz euskari ekitea erabaki dut.
- 2) Lanean EGA eskatzen didate, hortaz, hau lehenbailehen atera nahiko nuke.
- 3) Duela bi urte ere hemen egon nintzen eta oso gustura izan nintzenez, bueltatzea erabaki dut.

Laura. Administraria. Ika-ko ikaslea



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldia
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36

Gorbeia Merkaturia - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13
☎ 945 28 79 42
GASTEIZ



SANTI

HARATEGIA
URDAITEGIA

Paraguay kalea 17
☎ 945 27 07 90
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 eta 3
☎ 945 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 eta 3
☎ 945 26 78 97



JOSEBA

HARATEGIA

Paraguay merkatua
10 El Pilar auzoa
☎ 945 25 66 89
GASTEIZ



*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*



adaka
madinabeitia

**Floridako
altxorra !**

35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundación

A black and white portrait of a man with a beard and mustache, wearing a dark sweater, looking slightly to the right. The background is blurred, showing some architectural elements.

Gasteizen eraikiko den Arte Garaikidearen Museoa gaitzat hartuta, aurreko alean iragarri bezala, erakusketa kolektiboa ikusgai izan da Zuloa Irudian irailetik azarora bitartean. Iñaki Larrinbe artistak GERMEN izenburupean Gasteizko hogeita hamar artistaren lanak bildu zituen erakusketa honetan. Iñakirekin, Germen ekimena oinarri, museoaz aritu gara hizketan.



- Nola eta zergatik bururatu zitzaizun erakusketa kolektibo hau egitea?

- Pentsatu nuelako ideia polita izan zitekeela gutxi barru egingo den museoaren inguruko eztabaida artistengana eramatea. Nire iritziz gai hau, Museo berria, alegia, jorratzeko era egokiena arte plastikoetan islatzea zenez, erakusketa bat egitzea otu zitzaidan. Bazeuden beste era batzuk gai hori lantzeko, adibidez artisten artean

tertuliak egitea, baina nik uste dut artistek hitz egiteko duten modurik egokiena euren obren bitartez dela.

- Artelanei erreparatuz gero antzeman daiteke artista bakoitzak oso era desberdinean ulertzen duela museoa.

-. Halaxe da. Argi eta garbi somatzen da museoari buruzko iritzia asko eta oso ezberdinak direla. Eta gehienak gainera nahiko ironikoak dira. Baina ez



Ernesto Murillo

"Artistek hitz egiteko duten modurik egokiena euren obren bitartez da"

"Museoari buruzko iritzia gehienak nahiko ironikoak dira"



Txaro Arrazola

bakarrik hemengo museoari buruzko iritzia ematerakoan, oro har museoan inguruko aburua plazaratzerakoan baizik. Dena den, obrak banan-banan begiratu beharko genituzke jakiteko artista bakoitzak nola ikusten duen museoaren ideia.

- Erakusketaren izenburua GERMEN da. Zer adierazi nahi du izen horrek?

-. GERMEN izenarekin bi kontzeptu azaldu nahi izan ditut. Batetik, sortu edo hazi egingo den zerbait, kasu honetan Arte Garaikidearen Museo. Eta bestetik, "germen" hitzak badu beste zentzu bat, kutsakorra, gaixotasuna, gaitza... adierazten duena. Beraz, izen berarekin bi gauza horiek uztartu nahi izan ditut.

- Erakusketa kolektibo honetan parte hartu duten 30 artistak zeuk aukeratu al dituzu?

-. Ez, artistak izan ziren euren burua aukeratu zutenak. Nik Arte Ederretako Museoari eskatu nion Gasteizko artista guztien zerrenda bat, eta gero erakusketan esku hartzeko gonbi-



Ibon Saenz de Olazagoitia

dapena luzatu nien guztiei. Azkenean nahi izan dutenek hartu dute parte erakusketan. Beraz, ez da aukeraketa bat egon, eta hori interesgarria iru-

ditzen zait; izan ere, aukeraketak egitea ez zait gustatzen.

- Nolakoak dira artistak? Gazteak, ezagunak, hasberriak...?

-. Denetarik dago. Badira ezagunak direnak eta nolabaiteko izena dutenak mundu honetan, gazte samarrak direnak ere badaude, poetak, komikilariak,

Erakusketan ikusgai egon dire artelanen artean, Iban Arronizena bitxienetakoa izan dela esan daiteke. 25 urteko gazte honek kondoiz hornitutako metraileta batekin museoak iradokitzen diona adierazi nahi izan du. "Lan honekin kritika bat egin nahi izan diot museoari, izan ere ez dut uste ongi aterako denik. Pistolarekin adierazi nahi dudana da ez dakigula museoak zer ekarriko digun, zer "tirokatuko" digun. Ez dakigu, adibidez, noren esku egongo den museoaren kudeaketa, horregatik zalantzak ditut museoaren funtzionamenduaz". Halere, Ibanek museo berriaren irekiera halabeharrezkotzat jotzen du. Erakusketari dagokionez, Ibanek "ideia ona" izan dela dio, "ekimena positiboa izan da, eta horregatik Zuloak erakusketa gehiago antolatu beharko lituzkeela uste dut".



**"Gasteizen
erabil
daitezkeen
aretoak oso
gutxi dira eta
areto bat
aurkitzea ia
ezinezkoa da"**

**"Baliteke Gas-
teiz Estatuko
hiribururik
aberatsene-
tarikoa izatea,
baina
kudeaketa eta
intelligentzian,
pobreena"**

eskulturgileak, margolariak... Era eta mota guztietako artistek hartu dute parte hemen. Ikus-entzunezkoen jendeari ere gonbitea luzatu nien baina azkenean ezin izan dute esku hartu.

- Zaila izan da erakusketa hau martxan jartzea?

-. Zailena toki bat aurkitzea izan da. Izan ere, Gasteizen erabil daitezkeen aretoak oso gutxi dira eta areto bat aurkitzea ia ezinezkoa da. Normalean gutxienez urtebete itxaron behar da areto bat lortu ahal izateko. Hortaz, Zuloari proposatu nion erakusketa hau egiteko ideia eta azkenean toki honetan egitea lortu nuen. Gainera azkarra eta merkea izan da, eta hori da behar dena.

- Erakusketa irailaren 3an zabaldu zen... Nolakoa harrera izan du jendearengan?



Iban Arroniz

-. Nahiko ona. Gainera komunikabide gehienetan atera da, beraz, arreta piztu duela argi dago. Agian erakusketa kolektiboa egitearen ideia ez da beste munduko gauza izango, baina kritikatzeko zaila dela deritzot. Alegia, lanen kalitatea banan-banan kritika daiteke, baina erakusketa egitearen ideia kritikaezina da.

- Bukatzeko, artistek museoari buruz duten iritzia ezagutu dugu, baina zure iritzia jakitea ere gustatuko litzaiguke.

-. Nahiko eszeptikoa naiz museoarekin, batik bat Gasteizen bizi den jendea ikusita. Ez dakit

Gasteizko giroa herrikoiegia den eta, horregatik, gauza berriak egiateri beldur dion..., baina argi dago Gasteiz atzean geratzen ari dela beste hiriekin alderatuta. Jendeak garrantzi handiagoa ematen dio museoaren egoitza edo lekuari, edukia-ri eta museoaren filosofiari baino. Baliteke Gasteiz Estatuko hiribururik aberatsenetarikoa izatea, baina kudeaketa eta intelligentzian pobreena dela esango nuke.



Eduarne Begiristain

Karlos Fdz. de Betoño



Ibon Saenz de Olazagoitiak ironia erabili du bere artelanean. Museo berriaz mintzatu beharrean, egun, itxita dagoen Arte Ederretako museoa izan du hizpide 27 urteko gasteiztar honek. Baliabide digitalak erabiliz, museoa "CLUB" berezi bat bilakatu du Ibonnek. "Ironia puntu batekin museoaren ikuspuntu kritikoa azaldu dut. Eraikin zaharren erabilera berriak, horixe da nire lanaren esanahia".

Gasteizen erakusketa eskas dagoela dio Ibonnek, eta hortaz, gisa honetako ekimenak oso egokiak direla pentsatzen du. Gainera, erakundeei ez zaiela aretorik eskatu behar uste du berak, izan ere "instituzioekin dagoen lehiakortasuna gogorra da oso. Nik mota honetako erakusketak txalotzen ditut".



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

GEUREKIN MENDIRA BERIAIN (San Donato)

NOIZ: Azaroaren 21ean

IRTEERA: Goizeko bederatzi eta erdietan, Prado Kalean, Txapela taberanren aurrean. Kotxez joango gara (Badago lekuri)


ITZULERA: 4rak aldera

IBILBIDEA: Unanuatik Beriainera eta itzulera

Telefona: Edozein argibidetarako deitu telefono honetara: 945 26 68 12 (BEGO)

EUSKALDUNON GIDA 2000-2001


**EUSKALDUNOK
EUSKARAZ
BIZITZEKO
BEHAR DITUGUN
ZERBITZUAK
EZAGUTARAZIKO
DITUEN GIDA**



Euskaldunon Gida, euskaraz atenditzen duten enpresa, profesional, merkatar, erakunde eta norbanakoak biltzen dituen gida da. Euskaldunez osaturik dagoen gida bakarra, inoiz Euskal Herrian egin den maparik osatuena da. Ez da euskarazko gida, euskaldunez osaturik gida baizik. Bi urtetik behin argitaratzen da eta abenduan kaleratuko den gida berrian 30.000 fitxa inguru agertuko dira.

**GIDAN AGERTU NAHI BADUZU DEITU
945 22 21 53 TELEFONO ZENBAKIRA (GEU GASTEIZ
ELKARTEA ETA ALDIZKARIA) ETA BEHAR DUZUN
INFORMAZIO GUZTIA EMANGO DIZUGU:**

**Denetik eta denontzat!
BULTZA DEZAGUN!**



© Arabako Natur Institutua

Iñaki Zorrakin - Ani (945 - 24 66 06)

CASTELIZ
G



FERNANDO, atezaina (13 urte)

Itziar Uriarte Fdz. de Troconiz Karlos Fdz. de Betoño

Ume ugarik aurrelari izatearekin amets egiten dute, baina nor gogoratzen da atezain izateaz? Inor gutxi, ezta? Ba... halako bat Fernando dugu. Atezain trebea da bere ikastetxean, eta Alaves-eko Herrera ikustean berak ere atezain famatua izan nahi du. Ez pentsa atezainen lana baloiak harrapatzearekin amaitzen dela, bestela galdetu Fernandori! Pasa den urtean jokalaria guztiak ahobazalik utzi baitzituen gol paregabe bat egin zuenean.

Beraren ametsa, nagusia denean, Alaves edo Real Madrid-eko atezaina izatea da; beraz, egunero ohetik altxatzen da amets hori noiz beteko zain. Ez larritu, noizbehinka amets zailenak ere errealitate bihurtzen dira-eta.



GASTEIZ, IRUDIAK



Iratxe Alzola (9 urte)




Janire Mendaza (16 urte)

ASTIALDI TALDEAK

Ikasturtea hasi berria dugu eta gure aisialdia antolatu beharra dago. Futbola, saskibaloia, musika... Hori oso ondo dago baina nik beste gauza bat nahi dut... Astialdi talde batean sartu, zegatik ez? Aukera hau gero eta ume gehiagok hautatzen du eta Gasteizen astialdi talde ugari daude, auzorik auzo banatuta eskaera honi aurre egiteko prest. Hemen era askotako ekintzak burutzen dira: asteburuetako tailerrak, mendi irteerak, jolasak... Dena giro polit eta alaia sortu nahian. Hilabete honetan zehar aurkezpen jaiak izan dira; beraz, ez lokartu eta animatu!, abantaila anitzekin topo egingo duzuelako, hots, lagunak, barreak, jokoak..., ahalik eta denbora gehien ondo pasatuz.

Aukeretako bat: KIMUAK MIKELATS Aranbizkarrako
ASTIALDI TALDEA. Proiektu euskaldun eta aurrerakoa.





Zein da zuretzat... abestirik onena

ANDONI, 11 URTE

“Every body eh yeah... Every body eh...”. Abesti honekin Andoni dutxan zein kalean kantari aritzen da. Hala ere, txikitatik gehien kantatu duen abestia guztiok ezagutzen dugun: “Pintxo, Pintxo gure txakurra da ta,...”

JON, 11 URTE

Ekainetik hona Jonek abesti gogotsu bat darama berarekin burutik joan gabe: Green Day-ren Basket Case. Abesti hau, beste asko bezala, denboraldi labur batez pil-pilean egon da, gerora begira barruan geratzen zaizun horietakoa...



ZIGOR, 12 URTE

Zigorrek eta bere klasekoek autobusean mendira joaten direnean ahotsa abesti umoretsu batekin berotu ohi dute: “Sardina bat... Bi sardina... Topatu ziren...”





Jose Manuel Esnal MANÉ

LEHIARAKO PREST

Balmasedan 1950ean jaio tako bizkaitar honek hiru denboraldi daramatza Alaves taldeko buru tekniko lanetan. Denbora tarte honetan taldea lehenengo mailan kokatu eta iraunarazi du. Luzea da oso Jose Manuel Esnal, Manek, bere ibilbideko unerik gorenera iristeko egindako bidea, izan ere Bizkaiko gazte-selekzioa entrenatzen hasi zenetik Barakaldo, Sestao, Figeres, Lleida, Mallorca eta Levante taldeak ere bere aginduetara izan baititu Alaves-era iritsi aurretik.

• Zein da Alaves-en helburua denboraldi honetarako?

-. Gure xederik garrantzitsuena lehenengo mailan jarraitzea da, baina oraingoan pasa den kanpaina baino lasaiago ibili nahi dugu, estutasun sentsaziorik gabe. Lehiakide asko ditugu, denak, esango nuke.

• Denboraldia oso tankera onean hasi du Alaves-ek, zeri zor zaio?

-. Faktore askok izan dute eragina, baina bada erabakigarria izaten ari den baldintza bat: lehiatzeko mentalitatez sartu gara lehiaketan. Hau da nire ustez lehenengo arrazoia. Horretaz gainera, jokalarionak eduki ahal izateak ere asko egiten du, noski.

• Beraz, buru aldetik jokalariek erabat kontzentratuta, baina fisiko-ki zer moduz dago taldea?

-. Alde batetik, txapelketa honetan gauza handiak egin ditzaketela argi dute eta, bestaldetik, haien egoera fisikoa ezin hobea da.

ZALEEN BEROTASUNA

• Eta zaleak? Zer espero du taldeak beraietaz?

-. Aurreko kanpaina haien berotasuna ederki azaldu ziguten eta aurten ere haien laguntza morala emango digutela ziur nago. Igandero Mendizorrotza ikuskizun bat izaten da eta horretan publikoak partaidetza handia dauka;



Salva



MALDONADO

“PUBLIKOAK LAGUNTZA HANDIA EMATEN DU”

Salvador Maldonado Ruiz 1959an jaio zen Bartzelonan. Lau denboraldi jarraietan Manresako TDKrekin egindako lan bikainagatik, 95-96 kanpainako teknikorik onena hautatua izan zen. Aipatu taldearekin Errege Kopa lortu ondoren, lorpen berrien bila gidatuko du TAU Ceramica talde gasteiztarra.



egun horietan zehar kirol informazioaren gune izango da Gasteiz, horregatik, hala hiriarentzako nola klubarentzako ere oso interesgarria izango da antolakuntza gure eskuetan egotea.

• Zer moduz daude jokalariai saso aldetik? Giro baikorra al dago taldean?

-. *Juan Antonio Morales lesionatu zaigu eta hori kolpe inportantea da taldearen animoentzat, baina argi dugu gure helburua aurrera jarraitzea dela. Garaipenak lortzen jarraitu nahi dugu bai Saporta Kopan, bai Errege Kopan, baita ACB Ligan ere.*

• Zer moduzkoak dira TAU Ceramikaren zaleak?

-. *Jadanik ezagutzen nituen eta badakit Gasteizen ohitura eta ezagutza asko dagoela saskibaloia inguruan, eta beste kirolen inguruan ere bai. Zirrargarria da zortzi edo bederatzi mila pertsona hemen bilduta ikustea, horrek asko laguntzen du.*

• Zein da Baskoniaren xedea aurten?

-. *Goikaldean egon nahi dugu. Errege Kopan sartu garen arren, gure helburua lehenengo itzulia ondo bukatzea da, lehen zazpien artean. Ondoren, play off-etan sasoian baldin bagaude, ea lehenengo hiruren artean gelditzen garen.*

• Zer eragin izango du Errege Kopako fase finala hemen ospatzeak?

-. *Hiri mailan gertakizun garrantzitsua da, jende asko erakarriko du, baita dirua ere. Lau*



MANÉ



horrek taldeak gehiago eman dezala egiten du. Honen adibide garbia: pasa den urteko bigarren itzuliko emaitzak.

- Zer iritzi duzu Arabako ikuspegi futbolistikoaz?

-. Bigarren mailan bi talde eta lehenengoan beste bat izanda, esan daiteke oso panorama polita dagoela; argi dago azpitik oso lan ona egiten ari dela.

- Utz dezagun futbola alde batera... Zer egin ohi du Manek bere denbora librean?

-. Ez daukat gauza asko egiteko astirik, egia esanda ez dut astirik.. Baina ahal dudanean lagunekin egon eta hitz egitea atsegin dut, bestela zinema ere denborapasa ona da.

MALDONADO

"Euskara oso hizkuntza polita da, baina hori bai, oso zaila"

HARROBIA FALTAN

- Zer deritzozu arabar saskibaloiairen harrobiaz?

-. Jokalariak falta ditugu, hori da hutsunerik nabarmenena. Lortu beharreko helburua da jokalarien kopurua gehitzea, eta ez TAU Ceramicaren Saskibalo Eskolan soilik, baizik eta Araba mailan batez ere.

- Saskibaloiaz aparte, zeintzuk dira Salva Maldonadoren zaletasunak?

Nire familiarekin eta lagunekin egotea eta beraiekin irtetzea; mendira, paseoan...

- Zure familiak ere saskibaloiarenganako gustua garatu du, ez al da horrela?

-. Bai, zaletu amorratuak dira. Alabak Saskibalo Eskolan daude eta gustatzen zaie benetan, bizitzen dute. Oso garrantzitsua da emaztea eta alabak nirekin Gasteizen izatea.

- Zer moduz hartu zaituzte Gasteizek?

-. Hiri bezala oso ona da, parke asko ditu eta hori eskertzen da. Bizitzeko oso hiri eroso iruditzen zait. Tamalez, mediterraneotik gatozenontzat eguraldia apurtxo bat gogorra egiten da. Ez dakit zer egingo dudana eguzkia ezkutatzen zaigunean. Jendeaz ezin naiz kexa, ondo hartu naute.

ITURRIETA

Sagardotegia



**UDAZKENEKO
PLANIK ONENA!**

Arraga auzoa. Tfnoa.: 945 44 53 85 • ARAMAIO

Ka La Mu TABERNA

Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria,5

Tel.945-22 65 47 • Fax.945-26 50 16

01008 Vitoria-Gasteiz

MANÉ

**"Euskara ikasten askotan
saiatu naizen arren, oso
zaila iruditzen zait. Dena
den, semea bide onetik
doa"**

• Nola darama zure familiak futbolarena?
Zaleak al dira?

-. *Nire emazteak ez daki asko futbolaz baina
azken boladan interesatuago ikusten dut.
Eta semea, sei urte besterik ez dituen arren,
hasten ari da dagoeneko.*

• Euskara ikasteko asmorik bai?

-. *Askotan saiatu naizen arren, oso zaila egi-
ten zait. Gustatuko litzaidake, baina... Dena
den, semea bide onetik doa.*

• Zer moduzko giroa aurkitu duzu Gasteizen?
Atseginak al gara arabarrok?

-. *Oso pozik nago hemen, harrera sekulakoa
izan da eta Gasteiz hiri bezala oso lasaia da,
erosoa. Gasteiztarrek aspaldi ezagutzen
nituen, bizilaguna naiz eta; ezin naiteke ino-
laz ere kexa.*

MALDONADO



• Euskaraz zerbait dakizu? Ikasteko asmorik
ba al daukazu?

-. *Oso hizkuntza polita da, baina hori bai, oso
zaila. Zenbait hitz ezagutzen ditut, alabek
eskolan ikasten dutenaren erritmora noa.
"Ikusi-makusi" da ikasi dudana azkenengo
esaera.*

Ainhua Ferron



Edorta Sanz.



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA



Alternatiba susmagarria

Euskarak nahikoa protagonismoa hartu du PPK osatutako udal eta foru gobernuen lehenengo erabakietan, edo euskararen faltak zehazkiango esateko: gaztelera hutsezko udalekuak, Antzerkialdian euskarazko lanen portzentaiaren jaitiera eta zer den inork ez dakien udal haurtzaindegietarako "eredu elebidun bakarra" edo "eredu alternatiboa". Encina Serrano eta Raquel Martinez zinegotziek haur eskoletarako dituzten asmo berriak azaldu bezain laster alarmaren argi gorria piztu zaie EAJ-EA eta EHko udal taldeei, langileei eta hainbat gurasori.

Encina Serrano zinegotziak GEU GASTEIZi azaldu dionez, bere ustez udal haur heziketako hizkuntza ereduen sistemak aldaketa behar du. Aldaketa ez dago oraindik zehaztuta, baina legegintzaldian zehar burutuko dela ziurtatu du, ahal bada datorren urtean. Hasi berria den ikasturtean eskolatuta dauden hiru urte baino gutxiagoko neska-mutil gasteiztarren %60 udal haur eskolen sarearen zentruen batean ari da. Beraz, hartuko den erabakiak familia askorengan izango du eragina. Gurasoen eredu aukeraketa honakoa izan da aurreko gutxi gorabehera: %70k, gehiengo zabalak beraz, B eredu elebiduna aukeratu du, %17k A eredu eta %13ak D.



Encina Serrano Kultura Zinegotzia

Argazkia: Joseba Olalde





Arantza Zenarruzabeitia:
"A ereduak ez du balio. Adin horretan oso erraz ikasten dutela aprobetxatu behar da eta baliogarriena murgiltze ereduak deitzen dena da"

"Lehen hemen eredu bakarra zegoen, benetan elebiduna, eta emaitza onak zituen, baina PSE-EEk bultzatuta A, B eta Dren arteko banaketa jarri behar izan zituen Udalak"

Gurasoen aukerak

Aldaketaren abiapuntua gurasoen kexetan jarri du Serranok. Zinegotziaren ustez gurasoek eskatzen dutena, nahi dutena, haurra etxetik gertuen duten eskolara eramatea da. Horixe omen da beraien eskaerarik garrantzitsuenak, hizkuntza ereduaren gainetik ere. Egun dagoen sistemaren arabera gurasoek seme edo alabaren izena ematen dutenean hezkuntza zentroan ez dakite ziur haurra zein ereduren barruan egongo den. Izena emateko epea amaitutakoan aita-amek hautatu ereduak zenbatu eta gehiengoaren eskariaren arabera osatzen dira taldeak. Hortaz, iragan ikasturtean A ereduak izandako haurtzaindegi batean aurten D ereduak egon daiteke.

Zalantzak sortzen dira orain proposatu ereduak

elebiduna edo alternatiboa izango den azaltzeko eskatzen, eta B ereduak, elebidun ere bai, ez ote duen balio. "Gizarte anitz eta integratzaileari dagokion ereduak behar dugu. Ezin duguna da haurrak hizkuntzaren arabera gela ezberdinetan banatu. Pentsa ezazu auzoko bi ume, laguntxo bi, eskola berdinerak doazela, elkarrekin, eta gero han bakoitzak gela batean egon behar duela eredu desberdinetan ikasten dutelako. Gauzak ezin dira horrela egin".

Txikiaren eskolatzeko ordaintzeko Udalak jarritzen duen dirua ere aipatzen du Encina Serranok aldaketaren beharra azpimarratu asmoz. Udalak 800.000 pezeta ordaintzen du urtero haur bakoitzeko, "eta hori dirutza handia da. Horrenbesteko inbertsioa eginez Udala eta gurasoak asebetetzen gaituen ereduak bilatzea ezinbestekoa da".



GASTEIZ
DIBUtec
 Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- Fotokopiak
- kolorez eta Zuri-Beltzean
- Arte ederretarako...
behar duzun
guztia

PAPERTEGI TEKNIKOA

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
 TFNO. 143883

GASTEIZ



Gasteizen haur eskolek garrantzi handia dutela gogoratu du STEE-EILASEk: "neska-mutil askorentzat hor hasten baita euskararekiko harremana. Horregatik ezin ditugu oztopoak onartu"

"Aldaketa egitean arrazoi pedagogikoak hartu behar dira kontuan, ez politikoak"

Udal haur eskoletako hizkuntza eredueta aldaketak egitekotan hezitzaileen partehartzea aldarrikatu du STEE-EILASEk

Irizpide sendorik ez

Alderdi Popularreko Udal Gobernuak proposatutako aldaketak irizpide sendorik ez duela erantzun dute bai Arantza Zenarruzabeitiak, aurreko Kultura zinegotziak, eta baita STEE-EILAS hezkuntza sindikatuko udal haur eskoletako ordezkariak ere.

Arantza Zenarruzabeitia jeltzaleak penagarritzat jo ditu Hezkuntza Komisiona Raquel Martinezen zinegotziak egin nahi den eredu aldaketari buruz emandako azalpenak: "Ez zuen jakin aldaketaren irizpideak zehazten, ezta beraiek planteaturiko ereduak 'cierto corte bilingüe' izango duela zer esan nahi duen ere. Argi geratu zitzaigun bakarria izan zen gasteizko defentsan aritu zela. Besterik ez".

Gasteizko udal haurtzaindegietan hiru hizkuntza ereduak duela zazpi-zortzi bat urte ezarri zirela gogoratu du Zenarruzabeitiak. "Lehen hemen eredu bakarria zegoen, benetan elebiduna,

eta emaitza onak zituen, baina PSE-EEK bultzatuta A, B eta Dren arteko banaketa jarri behar izan zituen Udalak". Kultura zinegotzi ohia irakasle izandakoa da eta hiru urte bitarteko haurrentzat zein eredu den baliagarriena argi du: "A ereduak ez du balio. Adin horretan oso erraz ikasten dutela aprobetxatu behar da eta baliagarriena murgiltze eredu deitzen dena da".

Orain ekingo ote?

Serranok aldaketaren proiektua datorren ikasturteari begira bukatzeko asmoa agertu badu ere, Zenarruzabeitiak zalantzan jarri du berau orain aurrera eramango duten: "Hauteskunde nagusiak igaro arte behintzat ez dut uste, baina aurrera joatea erabakiz gero Udal Batzan gehiengoa lortuko dutela argi eduki behar dugu".

Gurasoen kezken inguruan mintzatzean ados agertu dira zinegotzi jeltzaleak eta STEE-EILASEko ordezkari sindikalak. Bi aldeek diotenez, egia da

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ

jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA

Aiztogile (KUTXI) kalean

Argazki - Estudio

Erramun

Heraclio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004



Koherentzia

Hezkuntza sindikatua bat dator PPko zinegotziarekin hiru eredu banaketa aldatu behar dela esatean, arrazoiak oso bestelakoak dira baina: "Legeak dio haurrek euskaldunak izan behar dutela eta eredu batzuek ez dute hori lortzen. Horretaz gain, hezkuntza osoko hizkuntza ereduak koherenteak izan behar dute. Ez da posible Gasteizko udal eskoletan eredu bat egotea eta

gainontzeko zentro publikoetan beste bat. Aldaketa egitean arrazoi pedagogikoak hartu behar dira kontuan, ez politikoak". Udal haur eskoletako hizkuntza ereduetan aldaketak egitekotan hezitzaileen parte-hartzea aldarrikatu du STEE-EILASek.

gurasoek eredu aukeratzeko eskubidea aldarrikatzen dutela, aldaketa bat gehiengo sistema horretan eta eskola bakoitzak eredu finkaturik izatea, alegia: "batzuek nahia-
go lukete umeak etxetik urrunago dagoen eskola batera eramatea, baina gustuko eredu ziurtaturik izatea".

Dena den, ez dute uste egon daitezkeen kexek PPk proposaturiko aldaketa justifikatzen dutenik. Eta bat datoz berriro ere haurren eskubideak errespetatu behar direla azpimarratzean, umeek euskara ikasteko eskubidea dutelako.

STEE-EILASen ez dute Encina Serranoren taldearen asmoen berri zuzena, "baina nondik datorren ikusita susmo txarrak ditugu". Hezkuntza sindikatuko ordezkariak Gasteizen haur eskolek garrantzi handia dutela gogoratu dute, "neska-mutil askorentzat hor hasten baita euskararekiko harremana. Horregatik ezin ditugu oztopoak onartu".

Encina Serrano zinegotziaren ustez udal haur heziketako hizkuntza eredu sistemak aldaketa behar du

Gurasoen eredu aukeraketa honakoa izan da aurten gutxi gora-behera: %70k, gehiengo zabalak beraz, B eredu elebiduna aukeratu du, %17k A eredu eta %13ak D

Leire Lpz. de Aberasturi

Karlos Fdz. de Betoño



MERKURIO-KADIMOAN
%0a

**CEGASA PILAK
INDARTSUEENAK
ETA
EKOLOGISTENAK**

**CEGASA
INTERNATIONAL
ALCALINA**

**CEGASA
INTERNATIONAL
TOP ENERGY
ALKALINE**

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

**XIXILU
JATETXEA**

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ

**HEGOALDE
Euskaltegia**

Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

GASTEIZKO MOBIDA MARTXAN DAGO

Katanga

Katanga Lantegi Kulturalak udazkenaren etorrerarekin batera ateak ireki dizkio gogoan aspaldi zerabilen egitasmoari: urte osoko iraupena daukan kurtso musikala, alegia. Izan ere, hamabost bat urtez musikaren arloan ibili den lantegi hau Gasteizen dagoen mundu honen maitaleen kopuru handiak daukan beharra asetzeko helburuarekin martxan jarri da.



Musikaren artea eskuragarri izan dadin kemenez eta gogoz lanean diharduten Katangako bi kiderekin hitz egiteko parada izan dugu. Albertok eta Luigik "Musika Modernoaren Eskola" izenaz urrian inauguratu berri den ikastaroaz mintzatzeaz gain, urte bukaeran izango duten jai bereziaren berri eman digute. Katangako estudioetan ekoizten diren filmeen musika, kontzertu eta ikuskizunez jabetzeko aukera ezin hobea

- Zein da musika eskola hau sortzearen arrazoa?

- Gure asmoa Gasteizen dauden musikariei beren beharretara hurbiltzen den errealitatea eskaintzea da. Honekin ez dugu helburu jada existitzen diren kontserbatorio edo musika eskola bat sortzea, baizik eta erantzun gabe gelditu diren eskaerei aukera bat emate.



Luigi eta Alberto de la Casa

"Gure asmoa Gasteizen dauden musikariei beren beharretara hurbiltzen den errealitatea eskaintzea da"

"Gasteizen lehen mailako jende anitz daukagu, hala nola, Angel Celada, Iñigo Muguruza, Gereñu, eta abar..."

tea. Izan ere, jendea bai ikasketengatik bai lanagatik askotan dauden ordutegietatik kanpo gelditzen da. Horregatik, bakoitzaren zailta-

sun nahiz denboraren arabera guk beren neurriko jantziak josten dizkiegu.

- Ikasleek duten beharra hain handia izanik zergatik ez zenuen ikastaroa lehendik ere gauzatu?

- Ideia hasiera batetik buruan bueltaka bageneukan ere, duela lau urte gauzatzen hasitako abuztuko hamabostaldi musikalak berau aurrera eramaten lagundu digu. Hau da, udako ikastaro honi esker egingdako analisi zein errealitatearen balorapenaren bitartez Gasteizko benetako eskaria zein den jakin ahal izan dugu.

- Zein da ikastaro honek bere lehenengo promozioan jaso duen erantzuna?

- Itzela izan da. Dagoen beharra hain da nabaria ezen publizitatea kaleratu gabe ere ehun bat pertsona ziren jada apuntatuak. Batik bat ahoz-ahozko propagandak izan du berebiziko garrantzia ihardunaldi hauetarako eskuratu duten harrera onean.

- Orduan, propagandaren beharrik ez duzue izan ikasleak informatzeko orduan?



DBK audio, Gasteizko talde askok hemen grabatu dute beraien lana

- Nahiz eta azkenean txartel-txo batzuk banatu genituen interesa zuen jendea ordurako informatuta zegoen. Musika eta musikarien beharren gai hau zein puntutaraino den garrantzitsua kontura gaitezen eta askotan zenbait ekitaldi eta ekintzaren oihartzuna nola heda daitekeen ikus dezagun, haxe da adibide garbia: behin Errioxako Lehendakari ohia eta Logroñoko Musika Akademiako Zuzendaria gure estudioetara etorri ziren beraien herrian gure lantegi kulturalaren antzerako eskola sortzeko asmoz.

- Nola estreinatu duzue aspal-didanik ideiatua zeneukaten egitasmo honen sorkuntza?

- Beno, ikastaroarekin batera bai hamabostaldi musikalean bai urrian ezagutu taldeek, guztira hogeita hamar bat, ostegunero kontzertua eskainiko digute. Kontzertu hauek lehiaketa moduan aurkeztuko dira. Beraien tresna-musikalak eta publikoa izango dituzte bitarteko bakarrak. Honez gain, ostiraletan inprobisazioa izango da nagusi Katangako

estudioetan, eta azkenik, larunbatero ikasleen arteko "combo"ak -ikasleek irakasleen laguntzaz prestaturiko saio amankomunak, praktikak nola-bait esateko- entzuteko aukera izango du bertara hurbiltzen den edonork. Hau guztia urriaren 21etik aurrera izango da abian.

- Ez zen erraza izango hainbeste ikaslerentzat irakasleak topatzea, ezta?

- Beno, egia da saiatzen garela

"Behin-betiko irakasleak daude eta, bestetik, klaseetara noizbait etortzen diren musikari ospetsuak"

"Lantegi Kulturalaren funtsak sistema horizontala du oinarri"

"Gu independenteak gara"



Luigi eta Aitor, Arte Gune-ren arduradunak



KAMISETAK:

KUKUXUMUSU, KOT,
PERRETIXIOAK BASOAN, BARABÚ...

OPARIAK ETA EUSKAL OROIGARRIAK

Euskal oihalak: mantelak, zapiak...

NONBAIT

Loma jeneralaren plaza, 5
Mateo de Moraza, 7

GASTEIZ

Tel./faxa: 945 232229
nonbait@nonbait.com

ZURE EUSKAL DENAK



Taberna berria ireki dute "Faktorian"

klaseak masifikazioa delakotik aldentzen eta horrek irakasle kopuruan gora egitea dakar. Hala ere, aski ondo moldatu gara; zorionez, hamabostaldian izandako irakasle berberak dauzkagu eta. Konturatzen ez garen arren, gure hirian lehen mailako jende anitz daukagu, hala nola, Angel Celada, Iñigo Muguruza, Gereñu, eta abar...

- Irakasleen artean izen handiko musikariak daude, nola moldatzen zarete agenda konpurtetan?

- *Batetik, behin-betiko irakasleak daude eta, bestetik, klase-etara noizbait etortzen diren musikari ospetsuak. Azken hauek, noski, lan handia daukate, baina, hala ere, gure ikastaroetara etortzeko saiakera egin ohi dute. Beraien agenda estua erraz konpurtzen dugu bertaratzen direnean "master-class" bat eskainiz. Hala nola, urria eta otsaila bitartean Angel Celada Gasteiza etorriko da bere disko berria gure estudioetan grabatzera. Beraz, aukera hori aprobetxatuz berarekin datozen zazpi gitarrek musika-tresna horren inguruko eskola trinkoa emango diete ikasleei. Guzak horrela, bizpahiru hilabetero musikari profesional bat izan-*

go dugu gure artean.

- Zein da Katanga aurrera eramanez ahal izateko oinarritzen zareten sistema?

- *Lehenik eta behin esan behar dugu Lantegi Kulturalaren funtsak sistema horizontala duela oinarri. Izan ere, gainontzeko enpresetan ez bezala, Katangan ez da besteen gainean dagoen nagusirik. Hemen guztiok gara estudioen eran-tzu-leak eta horregatik, norbera ezagutzen duen arloaren zuzendaria da. Honetaz gain, gure arteko komunikazioa ezinbestekoa da Katanga aurrera ateratzeko.*

- Dirulaguntzarik jasotzen al duzue?

- *Ez, gu independenteak gara. Hortaz, laguntza eskuratzeko prest gauden arren, ez gara independentzia galtzearen aldekoak. Horregatik, laguntzak baino hitzarmenak nahiago ditugu, hots, Katanga kultura izan ezik, ekoizten duen lantegizat uler dadin nahiago dugu. Kultura lurpetik atera behar den bitartean gure lantegiak bizirik dagoenaren garapena sustatzen baitugu.*



Josune Velez de Mendizabal

Karlos Fdz. de Betoño

DATORREN MENDERA-KO ZUBIA

Ikasturte berriari ongi etorria egin asmoz aste-bururo Katanga Lantegi Kulturalak Gasteizko talde anitzen kontzertuak eskainiko ditu bere lokal-etan urte bukaera arte. "Mende hau eta bestee-aren arteko zubi luze bat sortuko dugu", diote 'Katan-gero' bi hauek.

Gauzak horrela, Gabon Zaharrerako jaia prestatzen hasi dira Artapadura kalean. Egun horretan musika munduko hainbat pertsonaiak ezingo du afarian parte hartu, horregatik bakoitzak minu-tu bateko bideoan aurreko mende eta datorrena-ren kritikak eta itxaropenak, hurrenez hurren, emateko aukera izango du. "Modu honetan gau horretan gaudenok izan-go gara eta gainontzeko-ak ere era birtual batean gurekin izango dira Ka-tangan; Tinieblas, Ce-lada, marrazkilariak, eta abar...". Albertok eta Luigik jakinaren gainean jartzen gaituzte: "Afariaz gain, kontzertuak eta zenbait emanaldi ere egongo dira. Gau luzeena izango da, badakigu noiz hasiko den, baina buka-tu... Gasteizko mobida martxan dago!!".





Errege Atea, 9 - GASTEIZ
Tfnok: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38




**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33
GASTEIZ



JATETXEA


Aiztogile kalea (Kutxi), 26 - tfnoa: 945 28 81 47
GASTEIZ

**EUSKAL LABELA
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz



Hegoamerikako
jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoieko ertzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

ARANBIZKARRA

ZURE

AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

Agenda

Arabar Ikasleentzako Filme Laburren Gidoien Lehen Lehiaketa

D.B.H.ko arabar ikasleei zuzendua.
Antolatzailea: S.A.M.A. (Pedro Asua, 2 - 3.a)
Tfnoa: 945 24 46 03

Lanak aurkezteko epea: Abenduak 11 (euskaraz zein
gaztelaniaz).

Gasteizko Antzerki Jaialdia

TANTTAKA: "Novecientos (Bederatziehun)"
Azaroak 20 - Hegoalde Gizarte Etxea

TAUN-TAUN: "Txio Txioa"
Abenduak 11 - Ipar-Arriaga Antzokian

Euskharan. Ikasturte honetarako euskarazko kultur eskaintza

Kultur tailerrak, hezkuntzara zuzendutako ikastaro osa-
garriak, aisia eta astia, euskaldun berrientzako mintza-
praktika.

Euskharan Kultur Elkarte (Amaia Zentroa)
B. Pz. Galdos, z/g - Tfnoa: 945 28 82 75

MENDEBALDEKO SAHARA. Bake prozesua eta esperientziak



Munduko basamortu etsaienean milaka
errefuxiatu bizi dira duela 20 urte baino
gehiago.... saharar herriaren borrokak
jarraitzen du oraindik

Eguna: Azaroak 11, osteguna
Lekua: Bagare
Ordua: arratsaldeko 8etan.

Hizlariak:

Jesus Garai eta Malen Vilches

Antolatzaileak:

GEU Elkartea
Bagare
Euskadiko Errepublika Arabiar
Saharar Demokratikoaren Lagunen Elkarte

Laguntzaileak:

Euskadiko Kutxa
Arabako Aldundia

ERAKUSKETAK

Espacio de miradas
Argazkiak
Santiago B. Olmo
Araba Lurralde Historikoaren Agiritegian
99-10-21/99-11-14

IKASTAROAK

ESPERANTO IKASTAROA EUSKARAZ

Hegoalde Gizarte Etxean
Aurkezpena/ Izena ematea: azaroak 11, 20:30etan
Iraupena: 3 hilabete, astearte eta ostegunak,
8:30etatik 10:00etara
Informazio gehiago: 945 23 27 02 (Xabi)
Antolatzailea: Arabako Esperanto Elkarte

BAGARE EUSKAL TOKIA. 2. GAU ESKOLA - 1999/2000

Azaroak 8: Euskal Ekonomia (Joseba Tobar)

Azaroak 16, 22: Globalizazioa Euskal Herriko
ikuspegitik (Antton Mendizabal)

Azaroak 29: Lurraldetasuna

Abenduan, martxoan eta apirilean jarraituko du
Informazio gehiago: 945 25 10 84



MILA ESKER GUZTIEI!!

Zuen laguntzari esker GEU ELKARTEAK Euskaldunon Egunkariako 4 akzio erosi ahal izan ditu.

Bestaldetik, gure zozketaren irabazlea
(afari bat Iturrieta Sagardotegian) hau izan da:
ANA M^a AGIRRE

ZORIONAK ETA ESKERRIK ASKO

Gure saria jasotzeko, deitu telefono honetara:
(945) 22 21 53 (goizez)

IRUSTA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak
TABERNA
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ

MIKO
izozkiak



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

PLATÓ
TABERNA

Zaldiaran Plaza, 10 - Tfno.: 945 22 65 64



BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

LA RIOJANA
jatetxea

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39





**HONAKO BULEGO HAUTAN BADAGO EUSKARAZ HARTUKO ZAITUEN LANGILERIK**

BULEGOAK	ZERBITZUA	Helbidea	Tfnoa.
Udaletxea	Udal informazioa Argibideak eta Erregistroa Errolda Funtzio Publikoa Gazteen Argibide Bulegoa Idazkaritza Prensa Bulegoa Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1	010 16 11 88 16 11 06 16 11 41 16 13 30 16 13 20 16 13 37 16 13 08
Udala (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa Zergen Gestioa	Dato kalea, 11 Dato kalea, 11	16 16 68 16 11 33
Udala (S. Prudentzio kalea)	Gizartegintza Arkitektura Ingurugiroa	S. Prudentzio kalea, 30 S. Prudentzio kalea, 30 S. Prudentzio kalea, 30	16 13 44 16 13 01 16 11 20
Udala (Etxanobetarren etxea)	Emakumeentzako Zerbitzua Euskara Zerbitzua	Sta. Maria kalea, 11 Sta. Maria kalea, 11	16 13 25 16 15 22
Udal artxiboa	Argibideak	Unibertsitateko ibilbidea, 1	16 14 99
Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia	Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 87
Kultura	Argibideak	Goiuri jauregia (Villa Suso)	16 12 70
Hezkuntza	Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
Ekonomi Sustapena		Frai Zacarias kalea	16 12 11
Gizarte Etxeak	Hegoalde Iparralde Judimendi Lakua Aldabe	Alberto Shommer kalea, z/g Zuberoa plaza, z/g Sefarad plaza, z/g Etxanobetarren zidorra, z/g Eulogio Serdan Pasabidea, 2	16 18 80 16 17 50 16 17 40 17 17 81 16 19 19
Montehermoso Kulturunea	Argibideak	Frai Zacarias kalea, 2	16 18 30
Europa gizarte-etxea	Argibideak Biltzar eta Turismo Zerbitzua Kontzientzia Eragozpena Kirola Europar Mugimenduaren E.K. Elkarte eta Bolondresentzako Z.	Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85	16 12 31 16 12 61 16 36 91 16 15 61 16 15 57 16 19 48
Udaltzaingoa	Administrazioa Antolakuntza	Agirrelanda, 8 Agirrelanda, 8	16 14 58 16 16 60
Turismo bulegoa	Argibideak	Dato, 11	16 15 99

EUSKARAREN BOLUNTARIOENTZAKO IKASTAROA

BA AL DAGO BOLUNTARIORIK?

Hizkuntza zuretzat garrantzizkoa bada zeu ere garrantzizkoa zara hizkuntzarentzat



Noiz: Azaroaren 13an
Azaroaren 20an
Goizeko 9,30-1,30

Non: Kultura Etxea (Floridako parkean)

Izena ematea: GEU ELKARTEA 945 22 21 53
(goizez 9-12)

Matrikula: 1.500pta - 1.000 bazkideentzat
Apuntatzeko epea: Azaroak 9

GEU
GASTEIZ EUSKALDUNA

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Diputación
Foral de Alava



Arabako
Foru Aldundia